



16/2021 TXOSTENA, UZTAILAREN 25EKOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.

XEDEA: DEKRETU-PROIEKTU BAT EGITEKO PROPOSAMENA, EUSKADIREN FRANTZIAKO ORDEZKARITZA SORTU ETA ARAUTZEKO.

I.- AURREKARIAK.

2021eko azaroaren 18an, Lehendakartzako Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak txostena eskatu zuen, Euskadik Frantzian izango duen ordezkari-tza sortu eta arautzeko dekretu-proiektuaren proposamenaren inguruan.

Espedientea "Tramitagune" aplikazio informatikoaren bidez izapidetu da (prozedurak han izapidetzen dira elektronikoki), DNCG_DEC_59281/21_01 erreferentzia du, eta dokumentu hauek dauzka:

- Aurretiazko kontsulta publikoa, alegia, Euskadiren Frantziako Ordezkaritza sortu eta arautzeko dekretu-proiektua egin aurrekoa.
- Hasierako memoria.
- Memoria ekonomikoa.
- 42/2021 Dekretua, azaroaren 16koa, Lehendakariarena, agintzen duena hasiera emateko Euskadiren Frantziako Ordezkaritza sortu eta arautzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedurari.
- 43/2021 Dekretua, azaroaren 18koa, Lehendakariarena, Euskadiren Frantziako Ordezkaritza sortu eta arautzeko dekretu-proiektua aurrez onesten duena.
- Dekretu-proiektuaren testua.
- Lehendakartzako Aholkularitza Juridikoaren txostena.

II.- ESKUMENA.

Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak derrigor eman behar du txosten hau, dekretu-proiektuak kontratazioaren esparruan ere eragiten duelako eta Gobernu Kontseiluak onartu behar duelako. Hala egin behar dela jartzen du uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuan, 27. artikuluko a) letrako 2. zenbakian, eta dekretu horretan dator zehazturik Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea; (aurrerantzean, 116/2016 Dekretua). Bestalde, 116/2016 Dekretuko 30. artikuluko 2. apartatuaren arabera, egitura organiko eta funtzionalak arautzeaz den bezainbatean, Batzordearen kontsulta-eginkizunak Batzorde Iraunkorrak bete behar ditu. Txostenean, bestalde,



proiektuaren alderdi batzuk bakarrik jorratuko dira, hain zuzen ere, sektore publikoko kontratuen araubide organiko eta juridikoari eragiten diotenak, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honen eskumena kontratazio publikoari dagozkion gaietara iristen baita soilik. Horrenbestez, gai hauek aztertu ditugu:

III.- KONTRATAZIOAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK:

Proiektuaren zati hauetan ukitzen da gai hori; hitzez hitz:

4. artikulua. - *Euskadiren Frantziako Ordezkaritzako titularra.*

(...)

2.- *Jaurlearitzako Lehendakaritzako organoen eta arlo bakoitzeko sail eskudunen organoen menpe betiere, Euskadiren Frantziako Ordezkaritzako titularrak, bere esparruan, egiteko hauek beteko ditu:*

(...)

c) *Kontratazio-organo gisa jardutea bere lurralde-eremuan egiten diren kontratuetan, baldin eta sektore publikoko kontratuei buruzko legerian araututako kontratu txikiak badira, eta higiezinak errentatzeko kontratuak badira, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bateginaren 41. artikuluko 2. zenbakiko a) eta b) letretan ezarritako eran. Gainera, titularrak baimendu beharko du kontratazio horiek ekar lezaketen gastua.*

Ikus dezakegunez, kontratazioari dagokionez dekretu-proiektuak gauza bat bakarrik esaten du: Euskadiren Frantziako Ordezkaritzako titularra izango dela kontratazio-organoa. Xedapen horrek - garbi dago- Lehendakaritzaren egitura organiko eta funtzionalaren Dekretutik egiten du tira, hitzez hitz hango 19.3.c) artikulua jasotzen baitu. 5/2021 Dekretua da, urtarrilaren 19koa; 2021-01-29ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen; eta batzorde honek jada aztertu zuen bere garaian (12/2020 txostena, azaroaren 13koa, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorrarena).

Beraz, Euskadik kanpoan dituen ordezkarietzi dagokienez, kontratazioaz den bezainbatean, dekretu-proiektu honek ez dio ezer berririk eranstean Lehendakaritzak kontratazio-organoetarako lehendik ezarritako sistemari, eta ez dakar egungoaz bestelako inolako erregulaziorik.

IV.- ONDORIOAK

Azaldutakoagatik, ALDEKO TXOSTENA ematen diogu Euskadiren Frantziako Ordezkaritza sortu eta arautzen duen Dekretu-proiektuari.